


Mikel Basabe

IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Delirium

HORRELA ESATEN GENION, gaztetan, Delirium Tremens musika talde mutrikoarrari. Bat-batean etorri zait gogora.

Ia hogeita bost urte dira desegin zenetik, baina batzuek “eskuak atera eta plas-plas dena bota ondo”, eta horregatik edozer bota dezakete, lasai: orain bai, orain egin daiteke galdeketa bat hiru herrialde baino hartuko ez dituen. Ze hiru herrialde izango eta, justu, EAEkoak. “Zerutik emana nere hanketan mundua”, eta horregatik jarrera aldaketa erabatekoa zertan azalduz ere ez daukat. “Nahi dudana”, urteetan kontrakoa esan eta agindu badut ere. Urteetan dogma izandakoa, orain printzipiora ere ez da ailegatzen.

Badakit ez dela kontu berria, azken urteotan ugaritu egin bada ere. Esaterako, Nafarroako udal-terreko balkoietan ikurrina ez jartzeari: urte luzez bekatu mortala, orain bihurtu zaigu normala. Gogoratzen duzue Leitza sorturiko iskanbila? Edo Espainiako bandera udal-terreko balkoietan egotea. Bueno... zer zen hura! Egunokin, Laudion ere jarri dute. Zer esanik ez: Abiadura Handiko Trena kosta ahala kosta geratu beharra zegoen, “bitarteko guztiak” erabiliz, nahiz eta gero, Gipuzko-

*AHT kosta ahala kosta
geratu beharra zegoen,
“bitarteko guztiak”
erabiliz, nahiz eta gero,
Gipuzkoako Aldunditik
normaltasun osoz
ordaindu zitzaion
Jaurlaritzari trena
egiteko behar zuen dirua*

ako Aldunditik normaltasun osoz ordaindu zitzaion Jaurlaritzari trena egiteko behar zuen dirua. Ekarpenetik deskontatu? Baita zera ere. Gogoratuko dugu beste hura?: “Lege injustuak indargabetu arte, demokraziarik ez” ei zen egongo. Harik eta alderdien legea beteta (eta, nonbait, alde aurretik ba ei zeuden ‘morrontza loturak’ alde batera utzita) lasai asko bizi gaitezkeen legerik antidemokratikoenarekin ere. Lege guztiak bete behar baitira; zer diot nik lege! Epaileen agindu guztiak ere bete behar dira. Igeldoko desanexioaren kasuan, esate baterako: “Zu hona, zu hara, nik agintzen”, eta azkenean herri/auzoa ez hona, ez hara.

Kasu! Ez zait niri txarto iruditzen, “garai politiko berriak” horrela eskatzen ei du eta. Ados. Baina... azalpentxoren bat emango? Izan ere, “hargatik-politik” hori ez zait, bada, oso egokia iruditzen; ematen du “nik nahi dudanean eguna, gogoak jo eta gaua”. Eta, jakina, norbaitek kritikatzeko badu, “zu gora, zu behera... nik nahi det”, kritikagileak ezker abertzalekoak ez direla esan, eta arazoa konpondurik... Hara! Azkenean deskubritu dugu aldatzen ez den zerbait! ■



XDZ

Joanes
Etxebarria



KAZETARIA

Selfie

CATHERINE BALET-EN argazki bat aipagai zuen Conny Beyreutherrek *Zazpikan*, *Strangers in the light* serietik hartua. Nini bat argazki eta bideo kameraz inguratua da, eta pantailen atzean diren pertsonak iluminatuak bezala ageri dira. Serieko argazki guztietan ere hala da, pantaila andana bat eta atzean pertsonak, argituak.

Pantaila horiek, telefonoak, tabletak, ordenagailuak edo argazki eta bideo kamerak dira. Telefonoak dira anitz, eta etxetik kanpo segurenik, izan hirian izan baserri aldean, horiek ditugu gehien begiratzen ala ikusten. Gainera gehienak ordenagailuak

dira, Facebook ere badutelako.

Beste egunean, jatetxe batean, begitarte batzuk argitu ziren, pantailak zirela medio. Argazki bat norberaren buruari lehenik, *selfie* bat egungo mintzairan errateko, eta interneten publikatu gero, sare sozial delakoan. Ondokoak iruzkin bat idatzi, eta argazkiaren egileak errefera gero. Argazki gehiago, eta iruzkin gehiago. Elkarren ondoan jarriak ziren pertsona horien arteko komunikazioa, momentuan bertan, mundu osoan ikusgai zen, mundu guztia-rentzat, salbu beharbada mahai inguruko batzuentzat, internet falta zitzaielako. ■